



### SEKTOREA: MERKATARITZA

#### Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Merkataritzarako higiene- eta osasun-segurtasuneko protokoloa

Protokoloaren helburua da merkataritzaren sektoreko enpresetan ezarri beharreko jardunbide egokiak ezagutaraztea, **langileen zein kontsumitzaileen artean COVID-19aren transmisioa eta infekzioa saihesteko.**

Protokoloa egiteko, kontuan hartu dira Osasun Ministerioak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta OSALAN -Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak prestatutako jarraibideak eta gomendioak.

Hainbat neurri ezarri dira, **sei talde handitan** banatuta:

- 1- **Birusaren aurkako babes-neurri orokorrak.**
- 2- **Bezeroek hartu beharreko neurriak (erosi erosketa aurretik eta erosi bitartean).**
- 3- **Urruntze sozialeko neurriak**
- 4- **Higiene- eta osasun-neurriak.**
- 5- **Antolaketa-neurriak.**
- 6- **Gaixotasunaren, harreman estuen eta langileen zaugarritasunaren kudeaketa**

Gainera, Protokolo honen azken zatian, **lau eranskin** daude, neurri eta/edo gomendio espezifiko hauekin:

- Eremu bakoitzeko neurri espezifikoak.
- Merkataritza-guneetan kokatutako saltokientzako gomendio espezifikoak.
- Merkataritza-sektoreetarako gomendio espezifikoak.
- Sedentarioa ez den salmenta-merkatuen jarduerarako neurriak eta segurtasun-baldintzak Alarma egoeran.

#### **Protokolora sarbidea**